BUSTURIALDEKO
ETXEGINTZA GIDA

2021eko maiatza

GURE KABIA

HITZA

olaeta
asier olaeta eguren
barne diseinatzailea
elkartekide zk. 0303BI
·proiektuak ·berritze lanak
·gremioen arteko koordinazioa
·obra zuzendaritza ·giltza eskura
juan kaltzada 12 gernika-lumo asier.olaeta@gmail.com 656 745 004

POLITA ETA FUNTZIONALA

Etxea atsedenlekua da, babes lekua, kabia. Zaindu behar den eremu intimoa. Sentsazioak sorrarazten dizkiona etxekoari zein kanpotik bisitan datorrenari. Polita izatea garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da etxeko gela, zirrikitu bakoitza funtzionala izatea, berton bizi direnen premiak asetzea. Sarri ez da beharrezkoa aldaketa handiak egitea; etxeari itxura guztiz berritua eman diezaiokegu detaile eta keinu txikiei erreparatuz gero. Gida honetan etxea bakoitzak nahieran jarri eta gozatzeko ideiak eta azken joerak bildu ditu HITZAk, eskualdean diseinu, dekorazio eta etxegintza alorretan lan egiten duten profesionalen laguntzarekin.

GURE KABIA

BUSTURIALDEKO ETXEGINTZA GIDA [2021eko maiatza]

Doako argitalpena

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak
Helbidea: Elbira Iturri kalea, z/g
Gernika-Lumo • tel.: 94-627 10 85
busturialdea@hitza.eus
www.busturialdea.hitza.eus

Testuak eta publizitatea: **HITZA**
Diseinua, maketazioa eta testuak: **11barri**
Argazkiak:
Tapizgintza Crespo, DK Studioa, Pixabay eta Pexels.

www.geureanbai.eus

bai euskarari

Gaiak:

5 Eroso egoteko gelak | 10 Argiaren itzalean |
14 Logeletan, funtzionaltasuna nagusi | 16 Tapizak nonahi |
18 Koloretako mundua | 20 Gremio txikiak, gure etxeen zaindari handiak |
22 Sukaldeak: energia aurrezteko moduak | 24 Aurreztu, inbertsio ona eginez |
26 Lurrin naturalen ikutua | 29 Adimendun etxeak, erosotasunerako giltza |
30 Bainugela sinpleak atzean geratu dira | 32 Marmola, sukaldeetako errege berria |
34 Kalera begirako leihoak |

Enpresen aurkibidea:

Aseguruak

SEGUROS BILBAO 17

Diseinua eta dekorazioa

OLAETA [Diseinua] 2
MIKEL Altzariak [Altzariak] 5
HIZER [Dekorazioa eta barne diseinua] 11
TAPICERIA CRESPO [Tapizak] 12-13
DECORHOGAR [Dekorazioa] 14
ZULUETA [Altzariak] 17
RAFA DEKORAZIOA [Dekorazioa] 19
GAKOAK [Dekorazioa eta barne diseinua] 21
KUNKATXU [Dekorazioa eta barne diseinua] 27
GONZALEZ DEKORAZIOA [Dekorazioa] 28
IÑIGO dekorazioa [Dekorazioa] 29
KHALEKO [Altzarien zaharberritzea eta tailerra] 35
NORA [Barne diseinua] 36

Energia

EKOLEDS [Energia] 23
ENERTEK [Energia] 25

Eraikuntza

EGURROLA [Eraikuntza] 9
ARTETXU [Eraikuntza] 20

Gremioak

BITXI MARGOGINTZA [Margogintza] 19
ITURBERO [Berogintza-iturgintza] 31

Higiezinak

ITURGGES [Higiezinak] 32
SORKUNDE FINKAK [Higiezinak] 35

Igogailuak

ABANDO IGOGAILUAK 8

Koltxoiak

BED'S [Koltxoiak] 15

Sukaldeak eta komunak

ARRIANDI [Sukaldeak] 6-7
URRESTI [Materiala -Keramika] 15
GAROA [Sukaldeak eta bainugelak] 33
URALDI [Bainu-osagarriak] 31

Eroso egoteko gelak

Zurruntasunetik aldenduta, egongelak gune askeak dira, aldiro eraldatu daitezkeen gelak. Altzari zaharrak eta modernoak konbinatu, testura ezberdinak tartekatu, argiztapenak bereizi,... diseinu eta dekorazio aukera asko daude egongela eroso bat lortzeko.

Sofak dira egongelen bihotza, eta oso kontuan hartu behar dira egongelaren banaketa planteatzerakoan. Ondo aukeratzea da gakoa. Egongela txiki batean sofa handiegi bat edo egongela handi batean sofa txikiegia izatea baino akats handiagorik ez dago. Zenbaitetan, bi sofa edukitzea baino egokiagoa da *chaise longue* bat aukeratzea.

Ahalik eta atseginena eta praktikoena izatea bilatu behar da, eta aukeratzen diren altzarien eta koloreen arabera, egongelak handiagoa edo txikiagoa emango du. Zenbat eta hutsago egon, handiagoa emango du. Eta dena zuria bada ere bai. Piezen artean komeni da gutxieneko pasabideak uztea; zabalera sentsazioa areagotzeko –sofaren eta erdiko mahaiaren artean 45 zm-ko tartea egotea gomendatzen da–.

Argiztapena da oso kontuan hartu behar den beste elementu bat. Argi naturala izatea garrantzitsua da, eta horregatik, oztoporik ez zaio jarri behar. Argi artifizialari dagokionez, espazio bakoitzari giro berezia emateko, zeharkako argiak [zutikakoak edo mahaiko lanparak] erabiltzea da egokiena. Irtenbide ona da intentsitate graduagarriko argiak erabiltzea, hainbat giro sortzeko aukera ematen duelako.

LANERAKO TXOKOA

Egongelan lanerako txoko bat izatea da 2021eko beste joera bat. Bulego bat jartzeko metro koadro faltan, idazmahai bat jarri daiteke [ikusten dena edo ezkutukoa] egongelan bertan. Eraldatu daitezkeen altzariek ematen dute horretarako aukera.



NATURA OINARRI

Testura leuna alde batera utzita, naturari keinu egiten dioten pintatutako paperak indartsu sartu dira dekorazioan: loreek, hostoek edota adarrek etxe barruraino sartuko dute kanpoaldean bizi-bizi dagoen natura. Diseinu organikodun altzariak ere joera dira 2021ean.

KALITATE GORENA ETA EROSOTASUNA

BERE SUKALDEAK EKOIZTEAZ GAIN, SANTOSEN BANATZAILE OFIZIALA DA ARRIANDI. KALITATE HANDIKO SUKALDEKO ALTZARIAK, IRAUNKORRAK, ERGONOMIKOAK ETA FUNTZIONALAK GARATZEN ETA EGITEN DITUEN ENPRESA DA, BARNE ETA KANPO DISEINU ZAINDUA DUENA.



Zer eskaintzen diezue bezeroei?

Diseinu eta dekorazio integrala egiten dugu. Guk egindako sukaldeak edukitzeaz gain, Santos altzari firma galiziarragaz lan egiten dugu orain dela hamazortzi urtetik. Kalitate handiko sukaldeak eskaintzen ditu, prezio onean. Sukalde erosoak eta praktikoak dira, egunerokotasunean gustura lan egiteko, eta irauteko pentsatuta sortutakoak dira. Tendentzia berrietara adi gaude beti. Erosotasuna eta erraztasuna bilatzen ditugu.

Etxe guztia apaintzeko aukera ere ematen diezue bezeroei?

Bai, Abadiñon etxeko altzariak ere baditugu. Gelak, egongelak eta komunak apaintzeko altzariak ditugu. Eta Euskal Herritik kanpo ere mugitzen gara sukaldeak jartzen, ez daukagu mugarik. Adibidez, Kantabria edota Burgosen bigarren etxebizitzetan sukaldeak jarri izan ditugu.

Sektoreko gremioekin zuzeneko harremana daukazue.

Obra integralerako laguntza eta aholkularitza eskaintzen dugu. Guk geuk ez dugu obrarik egiten, baina kolaborazio moduan, gure konfiantzazko enpresekin lan egiten dugu obra integralak egiteko. Bezeroek ez daukate inolako konpromisorik, bakoitzak bere aurrekontua daukagulako, baina aukera ematen diegu etxeko obra zein dekorazioa elkarlan horretatik egiteko.

Esperientziadunak zarete sektorean. Noiz hasi zineten?

1987an guk egindako altzariekin hasi ginen. Arreta pertsonalizatua ematen dugu; hurbiltasuna, konfiantza eskaintzen dugu. Ematen dugun konfiantza bueltan ere jasotzen dugu bezeroengandik, askok etxez aldatzean edo beste etxe bat erosteaan errepikatu egiten dute eta. Sare sozialetara (Facebook eta Instagram) ere jauzia eman dugu, eta horietan sukalde errealak erakustea da gure helburua. Erakusleiho oso garrantzitsuak dira sare sozialak, eta gure eskaintza ezagutara eman eta jende gehiagorengana heltzeko aukera aparta.

ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

Industria 13
GERNIKA-LUMO
94-625 07 85
abadiano@arriandi.com
www.santosarriandi.com

KALITATEA LEHENESTEN DUEN FAMILIA

Mantenu lana baino gehiago. Tradizioa, kalitatea eta zaintza uztartzen dituen enpresa da Abando igogailuak. Tradiziokoa. 1988an sortu zen, Bizkaian, eta bigarren belaunaldiko familia enpresa da gaur egun. Gainera, hazkunde prozesuan dago. Bizkaian lan egiteaz gain, Gipuzkoa, Kantabria eta Burgos eta Arabako Aiaraldea inguruan lan egiten dute orain.

Bizkaiko gune perimetrala da enpresaren eremua, eta horretarako badago pisuzko arrazoi bat: bezeroei «zerbitzu on bat ematea», enpresa arduradunek diotenez: «Gure helburua da bezeroen intzidentziak gehienez ordubetera konponduta egotea». Hori da urrunetik heldutako enkargu edo lanei ezetza ematearen arrazoia; «ez dugu edozein lan hartzen. Gure asmoa ez da ahalik eta bezero gehien izatea fakturazioa handitzeko, baizik eta ditugun bezeroak zaintzea, eta merezi duten tratua ematea».

Hori bai, kalitatea zainduz, enpresa bezala haztea erronka da Abando igogailuak enpresarentzat: «Perimetralki hazten goazen heinean, plantilla handitzea eta zonalde bakoitza langile ezberdinekin kudeatzea». Horretarako, enpresa barruko 'familia' bere osotasunean zaindu behar delaren ustea dute arduradunek, horrek enpresari onurak dakarzkiolako. «Gure langile denak finkoak dira, eta horietako batzuk enpresa sortu genuenetik daude lanean». Beraien lana ondo ezagutzen dute, eta jarduteko autonomia dute enpresako langileek: «Ardurak eurekin batera kudeatzen ditugu».

Mugimenduan etengabe

Sarea zaindu

Hornitzaileei dagokienez, marka ugarirekin lan egiten dute. «Mantenua eta zerbitzua ematen diegu marka askotako igogailuei, eta instalazioak egiterakoan ere, marka desberdinekin lan egiten dugu, bezeroen nahietara egokitzeko». Beraien komertzialak proiektua hobetzen saiatuko dira, beti.

Izan ere, komunitate askorentzat lan egiten dute. Zerbitzua integrala da, eta obrak egiteko proiektuak hartzen dituztenean komunitateei aholkua ematen dieten profesionalak ditu enpresak: «Abokatu, arkitektu espezializatuekin, administratzaile desberdinekin eta gertuko gremio eta hornitzaileekin lan egiten dugu».

Sare hori finkoa da, «beti profesional berdinekin lan egitea gustatzen zaigu, sarea zaindu». Elkar zaindu, bezeroa zaintzeko.

ABANDO IGOGAILUAK

Kirikiño etorbidea, 64
BILBO
94-410 07 55
abando@ascensoresabando.com
www.ascensoresabando.com

egurrola.eus

EGURROLA
ERAIKUNTZAK

Bekoibarra, 35.
1. solairua.
9. Depart
GERNIKA-LUMO



696 400 486 / 688 681 539
info@egurrola.eus
@egurrola_eraikuntzak

Argiaren itzalean

ETXEAK ARGIZTAPEN EGOKIA EDUKI BEHAR DU ERABAT GUSTURA EGON GAITEZEN. ETA POSIBLE DA.

Etxebizitza bat berriztatzera goazenean, akatsa da azken momenturako uztea. Aldiz, erabat gomendagarria da hasiera-hasieratik etxearen antolaketan oso kontuan hartzea. Era horretara, etxeko espazio bakoitzari erreparatu behar zaio, emango zaion erabilerari, eta horren arabera argi mota bat edo beste aukeratu. Adibidez, sukaldea, oso ondo argiztatuta egon behar da, hau da, argia zuria eta hotza izan behar da, eta kontsumo baxuko argiak ipini behar dira. Logeletan, ostera, argi beroagoak ipintzea komeni, horixkagoak. Edozelan ere, argia geure erara doitzeko aukerak aztertu behar ditugu, eta gerizpeak ekidin beti, argiztapena homogeneoa izan behar baita txoko guztietan. Eta gogoratu guztiaren gainetik argiztapen naturalari probetxurik onena ateratzea.

ERAIKUNTZA · DISEINUA · DEKORAZIOA

HIZER STUDIO

Errehabilitazioak
Teilatuak
Fatxadak
Eraberritze lanak
Barne diseinua
Gremioen koordinazioa

Sukaldeak
Bainugelak
Materialak
Altzariak
Armairuak
Dekorazioa

HIZER
CONSTRUCCIÓN • DISEÑO • DECORACIÓN
STUDIO

"Imagina badezakezu, eraiki genezake"

info@hizerstudio.com
94 436 02 36 · 655 749 538

· **HIZER STUDIO** ·

Iparragirre 1
GERNIKA-LUMO

AINHOA, ALFONSO eta GORKA CRESPO
Arbasoengandik jasotako bizmoduaren hariari tiraka

“TAPIZATU DAITEKEEN EDOZER GUK EGIN DEZAKEGU”

HIRUKO TALDEA OSOTZEN DUTE. ARTISAUTZA DESAGERTZEKO DAGOEN ARREN, LANBIDE HORRI EUTSI DION HIRUGARREN BELAUNALDIA DIRA AINHOA, ALFONSO ETA GORKA. TAPIZEN OFIZIOAK BIZIRIK DIRAU BERAIEN FAMILIAN.

Tapizgintza artisaua

Zein da zuen berezitasuna?
Tapizaren artisauak garela esan genezake. Hori da gure sustraia.

Errestaurazioa ere lantzen duzue.
Bai, hala da. Aholkua ematen diegu bezeroei. Antzinako piezak zein berriak, denetik ekartzen digute eta guk gure esperientzia eskaintzen diogu bezeroari. Altzariaren estiloaren arabera, modu batera edo bestera egiten dugu errestaurazio lana.

Diseinatu ere egiten duzue. Proiektu berriak ere egiten dituzue?
Bai, zerotik hasitako proiektuak ere garatzen ditugu. Adibidez, zokorako sofa bat diseinatzen ari gara orain. Etxeko izkina batean jarri nahi du bezeroak eta gugana jo du, guk diseinatzeko.

Zuen lana ez da etxebizitzen dekoraziora mugatzen.
Ez, gauza gehiago egiten ditugu. Automozioaren arloa ere lantzen dugu. Ibilgailuetarako tapizak egiten ditugu: autoak, furgonetak, autokarabanak... Bezeroen beharretara egokitzen gara. Eskolek ere hainbat gauza eskatzen dizkigute: koltxonetak, berogailuak eta izkinak babesteko tapizak... Tapizatuta dauden gauza asko daude, eta horiek guztiak egiteko prest gaude beti.

Itsasontziak ere badira zuen merkatua.
Bai, itsasontziak ere janzten ditugu, gortinak egiten ditugu, koltxonetak, toldoak...

Beraz, eskaintza zabala duzue.
Tapizatu daitekeen edozer guk egin dezakegu, bezeroak behar duena egiten saiatzen gara. Gure tailerra daukagu, eta edozer gauza egin dezakegu. Ez gaude estilo, neurri edo produktu zehatz batzuetara mugatuta. Moketak, alfonbrak eta gortinak ere egiten ditugu.

Horiek ere neurrira egindakoak?
Bai, neurrira eta bezeroak nahi duen estilokoa. Dendan bezeroei arreta ematen diegu, baina ez dugu momentuan saltzeko ezer, dena enkarguz egiten dugu.

Horrek esan nahi du zuen bezeroek produktu esklusiboak erosten dituztela.
Bai, guk egiten duguna beren-beregi beretzat egindakoa izango da.





Crespo SL
Frai Martin de Murua kalea, 2
GERNIKA-LUMO
94-625 21 03
tapiceria@tapiceriacrespo.com
www.tapiceriacrespo.com

Logeletan, funtzionaltasuna nagusi

LOGELA BAT ANTOLATZERAKOAN PRAKTIKOTASUNA BILATZEN DA, BAITA ESPAZIO GUZTIA AHALIK ETA GEHIEN APROBETXATZEA ERE. LOGELA OSATUKO DUTEN ELEMENTUEKIN LORTZEN DA FUNTZIONALTASUNA.

Erronka handia da ezerezetik logela bat eraikitzea. Izan ere, diseinua egiterakoan hainbat dira aintzat hartu behar diren kontuak. Horiek guztiak antolatzerakoan praktikotasuna bilatzen dute gehienek eta espazioak ondo aprobetxatzeko orduan funtzionaltasuna da nagusi.

Praktikoa eta beharrezkoa dena antolatzeko modu bat da logeletako elementuetan funtzionaltasuna bilatzea. Horretarako, gauza guztiak gorde eta euren lekuan mantentzeko aukera ematen duten armairuak eta tiraderak erabiltzearen aldeko apustua egiten dute diseinatzaileek: gauzak aurkitzeko momentuan denbora aurrezten du eta espazioa zabaltzen du.

Halako espazio bat lortzeko, baina, beharrezkoa da logela bateko ingurune desberdinak bereiztea, bataren eta bestearen arteko jariakortasuna mugatu barik. Eta horretarako, funtsezkoa da ordena mantentzea. Izan ere, gero eta gauza gehiago dira logeletan aurki daitezkeenak; armairua, ohea, ikasteko mahaia edota eserlekua, besteak beste.

Oheak berebiziko garrantzia

Logeletan betetzen duen espazioari zein eskaintzen duen onurari erreparatuz gero, berebiziko garrantzia du oheak. Osasun fisiko eta mentalerako funtsezkoa da atsedena, eta horregatik da horren garrantzitsua koltxoi egoki bat aukeratzea. Izan ere, herritar batek bere bizitzaren heren bat lotan igarotzen du.

Koltxoi on bat erostea osasunean inbertitzea da, maila fisikoan zein psikologikoan. Ohikoa da atsedena bermatuko duen koltxoia aukeratzerakoan zalantzak sortzea, baina bakoitzarentzat egokia den aukera da bilatu beharrekoa. Hau da, norberaren beharretara eta erabateko erosotasunera egokituko den koltxoia.

URRESTI
KERAMIKAK || ERAIKUNTZA MATERIALAK
PRODUKTUAK
Eraikuntza materialak
Burdindegia eta eraikuntzarako erramintak
Keramikak eta bainugelak
BdB
eraikuntzako zure denda
94-688 21 52 · urresti@grupobdb.com · Landabaso industrigunea 6 eta 7 - BERMEO

atsedena eta zu
KOLTXOIAK
EUSKARRIAK
BURKOAK
OHEKO ARROPA
beds
Don Tello, 19
94-625 57 68
48300 GERNIKA
Atalde, 2
94-602 82 46
48370 BERMEO
Alluitz, 1
94-400 59 80
48200 DURANGO
beds.es

Tapizak nonahi

Tapizeriak aukera ugari ematen ditu dekoratze prozesuan. Sofak, armairuak, dentisten aulkiak, motorretako eserlekuak... edozein altzari tapizatu daiteke. Hala, erosi-bota-erosi filosofiarekin aspertuta dauden horientzako aukera egokia izan daiteke.

Tapizean adituak direnek esaten duten moduan, zaharkituta dagoenak zaharberritzeko balio du, gustuko ez duzunak gustukoa bilakatzeko eta konpontzeko dagoenak konpontzeko.

Tapizgintzak nahi dena egiteko aukera ematen du, zerbait pertsonala eta desberdina egiteko aukera eskaintzen du, alegia. Pieza bakarrak eta esklusiboak egin daitezke.

Materialari dagokionez, orokorrean **tapizeriarako ehunak lodiak izaten dira**. Ehun perfektua aukeratzeko, kontuan hartu behar da zein altzaritarako erabiliko den eta zertarako erabiliko den. Hala eta guztiz ere, ez da inoiz oihal normal bat aukeratu behar tapizeria egiteko, gutxi iraun dezakeelako eta oso erraz urratu edo higatu daitekeelako.

Hainbat motako ehunak daude aukeran. Lihoa edo kotoia moduko ehun naturalak daude, freskoak dira udan eta epelak neguan. Gainera, erresistentzia eta kalitate handia eskaintzen dute, baina garestiagoak ere badira.

Argazkiak: CRESPO TAPIZGINTZA

Ehun sintetikoak ere badaude, prezio egokiagoa daukate eta erresistentzia handia dute. Gaur egun, gainera, ehun sintetikoek emaitza arrakastatsuak ematen dituzte, ondo imitatzen dituzte ehun naturalak, beraz, gehien erosten direnetakoak dira.

Pana, larrua edo larru sintetikoa ere erabili daitezke. Larrua oso iraunkorra da, baina larru sintetikoa askoz merkeagoa da. Bestalde, belusezkoak eta txinilleak ere badaude aukeran.

Tonuari dagokionez, ehun arruntak arrakastatsuak izaten dira, erraz konbinatu daitezkeelako beste oihal eta koloreekin. Hala eta guztiz ere, mota guztietako estanpatuak aurkitu daitezke merkatuan.

Ultimate Gray
17-5104

Illuminating
13-0647

Koloretako mundua

ARGIA, ILUNAK, BIZIAK, SOLIDOAK, PASTELAK, MATEAK, DISTIRATSUAK... ETXEA MARGOTZEKO MILA ETA BAT AUKERA DAUDE.

Mila kolore etxeari merezi duen izaera emateko, zeukan izaera bueltatzeko. Paleta zabal horren baitan, Pantonek urteko kolorea aukeratu du aurten ere. Bakarra beharrean, bi kolore aukeratu dituzte, "indarra eta positibotasuna" transmititzeko: *Illuminating 13-0647 [horia] eta Ultimate Gray 17-5104 [grisa]* dira aurtengo koloreak. Pantoneren esanetan, bi kolore horiek elkartuta indarra eta itxaropena transmititzen dituzte; *Illuminating* edo horia denak berotasuna eta eguzkiaren energia transmititzen ditu, eta *Ultimate Gray* edo grisak, aldiz, gauza solidoen irmotasun eta segurtasuna. Biek elkarrekin, positibotasuna eta erresilientzia.

Proposamenetatik haratago, urterik urte zuria egoten da etxe barruak apaintzeko koloreen gorenean. Hormak direla, oihalak direla, altzariak direla edota dekorazio piezak, zuriak ez du inoiz hutsik egiten. Espazioak handiagoak ikusten dira, argia ematen du eta etxea alaitu dezaketen beste konbinazio eta tonalitate batzuekin jokatzeko aukera eskaintzen du. Kolore zuria beti dago modan, beti da joera.

Eta ez zuria bakarrik. Naturari keinu eginez, kolore neutroak modan daude, beixa kasu, batez ere hormak margotzeko edota irakurtzeko edo erlaxatzeko txokoetarako.

Marroiaren eta grisaren arteko kolore beroa, berde oliba delikatua, urdinen paleta bere osotasunean, arrosak.... Eta azken urteetako joerari eutsiz, grisa; konbinatzeko erraza eta oreka eskaintzen duen kolorea.

Bitxi
MARGOGINTZA
decoracionesbitxi.net
605 74 85 84 • Aurrekoetxea 16 behea - BERMEO

Rafa
DEKORAZIOA
94-688 37 41
Zubiaur-tar Kepa kalea, 6 - BERMEO · crmaika@yahoo.es

Gremio txikiak, gure etxeen zaindari handiak

Ia oharkabean pasatzen da gremio txikien lana, baina derrigorrezkoak dira etxea zaintzeko. Izan ere, aldian behin, haienganajo behar izaten da konponketak egiteko. Igeltseroak, margolariak, elektrikariak, iturginak eta arotzak dira aliatu nagusienak etxebizitza ondo edukitzeko, eta, azken baten, etxebizitza bateko bizilagunak eroso sentitu daitezen. Izan ere, arazo txikiak handi bilaka daitezke laguntza profesionalik gabe. Ez hori bakarrik: elkarrekin koordinatzen dira batek baino gehiagok esku hartu behar duenean, elkar ondo ezagutzen dute eta. Era horretara, irtenbidea erraztu egiten diote bezeroari, normalean norajo ez dakiela ibili ohi delako informazio edo asti faltagatik, oraindik eta gehiago larrialdi bati erantzun beharra dagoenean. Horren aurrean, sektoreak efizientziarekin, prestutasunarekin eta bizkortasunarekin erantzuten du, eta bizitokiak berriro gure babes leku bihurtzen dira, ezustekoetatik salbu.

gakoak
INTERIORES

GAKOAK HURBILTASUNETIK SORTUTAKO DEKORAZIO ETA BARNE DISEINUEN TOKIA DA.

"Hurbileko hornitzaileekin lan egiten dugu, bai gremioak zehazteko zein produktuak aukeratzeko orduan. Horrek hartu-eman zuzena sustatzen du eta konfiantza eraiki". Urdaibaiko erdigunean kokatuta, bertako materialekin lan egitearen alde egiten dute.

Jasangarritasuna ere bilatzen dute diseinuetan, osasuna bermatu eta erantzukizunez jokatzeko. Horretarako, ahalik eta produktu jasangarriagoak bilatzen dituzte, material zein margo organikoak, esaterako. "Kontzientzia hartzen eta lantzen ari garen esparrua da jasangarritasunarena".

Hurbilekoa da baita ere bezeroekiko duten harremana, euren beharrizanetara egokitutako proiektuak garatzen dituztelarik: "Beti egokitzen gara bezeroek behar dutenera, bakoitzak bere beharrizanak dituelako eta denonak ez direlako berdinak. Bezeroa gustura geratu arte, lanean jarraitzen dugu".

ERREFORMAK PROIEKTUAK GREMIOAK DEKORAZIOA

GERNIKA-LUMO
94-625 05 16
interiores@gakoak.com
www.gakoak.com

Sukaldeak: energia aurrezteko moduak

Etxebizitzan energia kontsumitzen den lekuren bat bada, hori sukaldea da. Horregatik, garrantzitsua da energia nola aurreztu daitekeen jakitea.



1. INDUKZIO PLAKA.

Bitrozeramikak eta gasezko sukaldeak baino energia gutxiago kontsumitzen du. Janaria azkarrago prestatzen da indukzioz eta plaka bera bakarrik itzaltzen da.

2. LABEA.

Funtzionatzen dagoen bitartean, saihestu zabaltzea, hori egin bakoitzean barruan metatutako energiaren %20 galduko du eta. Janari bat baino gehiago egin aldi berean, eta sukaldatzea amaitu baino arinago itzali, barruko beroa aprobetxatzeko.

3. HOZKAILUA URRUNDU.

Sukaldeko gainerako etxeko etxetresna elektrikoetatik urrundu. Labearen edo mikrouhin labearen ondoan egonez gero, hotz mantentzeko lan gehiago egin beharko du.

4. ONTZI GARBIGAILUA.

Ontziak eskuz garbitu beharrean garbigailuan garbitu, ura aurrezteko eta kontsumo arduratsurako. Garbigailua bete eta programa motz eta ekologikoak erabili.

5. A+++ ETIKETA.

Etxetresna elektrikoetan A+++ etiketa daramatzatenak aukeratu; batez ere hozkailua, etengabe martxan egonda, energia gehien kontsumitzen duen gailua delako. Oso eraginkorrak dira eta energia asko aurrezten dute.



6. ITURRIA.

Harraskako iturriari aireztatzailea jarri, ura aurrezteko. Ura eta airea nahastuz, uraren ur-emaria zuzentzen du. Kontsumoa %50eraino murrizten du.

7. ARROPA GARBIGAILUA.

Arropak garbitu bakoitzean, edukierari ahalik eta probetxu handiena atera. Erdizka betez gero, karga erdiko eta 40 graduz azpiko programak erabili.

Aurreztu, inbertsio ona eginez

Bataz beste, etxebizitza bakoitzean urtean 1.000 euro gastatzen dira energia kontsumoan. Kostu horren erdia, baina, berogailu edota aire egokituko sistemek eragiten dute. Horri dagokionez, energia aurrezpena inbertsio on bat egitetik hasten da. Adibidez, isolamendu ona eskaintzen duten leihoak ipiniz gero, epe motz zein luzera energia aurreztea lortzen da.

Gauza bera gertatzen da behegainarekin ere. Behegain egoki batek etxebizitza bateko tenperatura mantentzea ahalbidetzen du. Egurrezko zoruak, esaterako, tenperatura ondo mantentzeko oso baliagarriak dira. Eta egungo teknologiarekin, zoru bero-emaile bidezko berokuntza sistema ere eraginkorra izan daiteke egurrezko zoruarekin.

Etxebizitza barruko ate guztiak zabalik edukitzea ere beste trikimailu bat da. Askok uste dute erabiltzen ez den gela bateko atea itxi eta gela horretan berogailurik ez jartzea kontsumoa aurrezteko modu bat dela. Baina ideia hori ez da zuzena. Egokiena da etxebizitza osoa tenperatura berean mantentzea.

enertek

energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa

- Eguzki plaka fotovoltaikoen instalazio integralak, legalizazioa barne.
- Bezeroaren behar eta aukeretara egokituriko instalazioak.
- Etxeko energia kontsumoaren %40-50 aurreztera iritsi daiteke.
- Inbertsio handiegirik egin gabe, urte gutxiren buruan amortizatzeko errazak.
- EVE-ko %18-%25 bitarteko diru laguntzak.
- Kasu askotan, instalazioaren %100 finantziatzeko aukera, argindarrean aurreztutako diruarekin instalazioa ordaindu eta inbertsiorik egin gabe, instalazioa aurrera eramateko aukera.

EUSKO JAURLARITZAREN
ETA EEE-REN
DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EVE | Ente Vasco de la Energía

Non gaude?

Beheko Ibarra Industriagunea
Arburu, 27-9 GERNIKA-LUMO

686 28 22 55
679 37 19 06

enertekrenovables@gmail.com
www.enertek.eus

Lurrin naturalen ikutua

LURRINEK UKITU PERTSONALA EMATEN DIETE ETXEEI, NORTASUN BEREZIA.

NATURA BESTE MODU BATERA SENTITZEKO AUKERA EZIN HOBEA DIRA.

LOREAK

Naturako usaina etxera eramateko modu bat lore naturalak jartzea da. Usain freskoa eta garbia uzten dute. Gardeniak, jasminak eta lilak dira eguneko orduetan gehien erabiltzen diren geletarako egokienak. Basoetako usainak ere aukera oso ona dira; pinuarena eta sandaloarena, adibidez. Azken hori oso egokia da logelarako eta komunerako.

FRUITUEKIN EGINDAKOAK

Zitrikoekin egindako lurrinak dira gehien irauten dutenak, limoiarena eta laranjarena batez ere. Limoiaren, erromeroaren eta banillaren nahasketatik oso usain freskoa lortzen da. Laranja kanelarekin edo jengibrearekin nahastuz gero, usain gozoagoa lortzen da. Uretan sartuko ditugu nahi ditugun osagaiak eta ura lurruntzen joan ahala, usaina etxe guztian zabalduko da. Bi-hiru aldiz erabili daiteke fruitu bakoitza.

USAIN FRESKOAK

Lihoaren eta kotoi-landarearen usainak asko erabiltzen dira etxeek usain goxoa izan dezaten. Freskoak eta arinak dira eta edozein geletarako egokiak.

ERLAXAGARRIAK

Labanda eta jasmina. Labanda da erlaxatzeko usainen artean arrakasta handiena duena. Minari aurre egiten eta lo hartzen laguntzen du. Jasminaren usainak antsietatea gutxitzen laguntzen du. Biak ala biak aproposak dira egongeletarako eta logeletarako.

kunkatxu

"PERTSONALIZATUTAKO ELEMENTUEK ETA DIZIPLINA ANIZTASUNAK EGITEN DUTE BEREZI KUNKATXU"



BARNE DISEINUAN GRADUATUA ETA ARTE EDERRETAN LIZENTZIATUA, KUNKATXU PROIEKTUA ABIATU ZUEN NORAK; SORMENEZ, ILUSIOZ ETA DEDIKAZIOZ DIHARDU.

Zer da Kunkatxuk eskaintzen duena?

Barne diseinu integrala eskaintzen dut. Planoen sorreratik hasita, proiektu, obra, berriztatze lanak, altzari eta osagarrien horniketa edota sormenera arteko eremua hartzen dut. Bezeroa entzun eta ezagutuz, gauzak haien ezaugarrietara, gustura edota beharretara egokitzen ditut, espazioaren aukerak eta aurrekontuak kontutan edukita noski.

Diseinuaren beste arlo batzuk ere lantzen dituzu.

Xarma berezia lortzeko diseinuaren alor ezberdinak uztartzen dira nire lan askotan. Alor horiek bakarka ere lantzen ditut: diseinu grafikoa (logotipoak, txartelak, biniloak ...), erakusleihoen apainketa, artisautza, altzarien eraldaketa, diseinu artistikoa, joskintza... Datorren ikasturtean, esaterako, tailer ezberdinak antolatuko ditut barne diseinuaren alorrean bezeroek euren sormena eta autonomia lantzeko. Udan zabalduko dut programazioa.

Zeintzuk dira eremu baten diseinua lantzerakoan kontuan hartu beharreko faktoreak?

Barrualdearen antolaketa ondo landu nahi bada, bi faktore garrantzitsu daude: nori zuzenduta dagoen eta bezeroaren beharrizanak eta gustuak identifikatzea, eta espazioaren akatsak eta bertuteak antzematea eta horiek aintzat hartzea. Horiek ondo landu behar dira funtzionalitatea eta praktikotasuna lortzeko.

Altzarietan eta osagarrietan, gainera, ekoizpen propioak ere egiten dituzu, ezta?

Altzari berri zein zaharren estudio eta eraldaketa egiten ditut pieza pertsonalizatuak lortzeko. Pieza bakar horiek etxeari bezeroaren zigilua ematen diote: altzariak eta baita osagarriak (lanparak, kuadrotxoak, kuxiñak ...).

Egiten ditudan pertsonalizatutako elementu horiek, diziplina aniztasunak eta prozesuen eta materialen erabilerak egiten dute berezi Kunkatxu.

Aldape, 2 (sarrera San Juan kaletik)
GERNIKA-LUMO
kunkatxu@gmail.com
@kunkatxu

"ETXEBIZITZA OSOKO PROIEKTUAK EGITEN DITUGU, OSORIK JANTZITA"

GONZALEZ DEKORAZIOA
IOANA GONZALEZ

Zer eskaintzen du Gonzalez Dekorazioa dendak?

Gonzalez Dekorazioa ez da bakarrik altzariak saltzeko puntu bat, interiorismoaz arduratzen gara. Proiektuak egiten ditugu: logelak, egongelak, sukaldeak... bai eta etxebizitza osoak ere. Bezeroaren nahien arabera, katalogoen bidez guk daukaguna erakusten diegu. Ideia bat eginda daukatenean, euren etxeetara goaz, neurriak hartzen ditugu eta proiektua egiten dugu 3D formatuan. Modu horretan, bezeroek jakin ahal dute zelan geratuko den.

Hasieratik amaierara egiten dituzue proiektuak.

Bai, gaur egun gai gara etxebizitza osoa egiteko; papera, pintura, izarak, landareak, osagarriak... Guregana datorren pertsona batek proiektu osoa egin dezake gugaz. Bakoitzaren ekonomia eta gustuen arabera, bere etxea errealitate bilakatzen laguntzen diegu bezeroei. Bezero bakoitza garrantzitsua da.

Berritzen joan behar duzue?

Hala da, bai. Lehen, ezinezkoa zen ikustea armairu bat zelan geratuko zen. Orduan, ordenagailuetako programak erabiltzen hasi ginen, etxearen ikuspuntu osoa eduki ahal izateko. Urteekin, diseinuan sartu gara eta sukaldeak ere egiten ditugu. Saiatzen gara, gainera, azoka desberdinetara joaten momentuko tendentziak zeintzuk diren ezagutzeko, asko aldatzen direlako.

Familia enpresa duzue.

80 urtetik gora daramatzagu Gernika-Lumon. Gure aititak eta osabak sortu zuten enpresa. Gero nire aita egon zen, nahiz eta enpresa aurrera ateratzeko kudeatzaile bat sartu zen, ez zekitelako askorik altzariei buruz. Horiek erretiroa hartuta, neba-arrebak sartu gara. Jendeak ezagutzen gaitu, konfiantza osokoak gara, horregatik daramatzagu 80 urtetik gora hemen.

GONZALEZ DECORACIÓN

San Juan kalea, 11
GERNIKA-LUMO
94-625 04 82
proyectos@gonzalezdecoracion.es
gonzalezdecoracion.es

Adimendun etxeak, erosotasunerako giltza

Lehen zientzia fikzioa zirudiena errealitate bilakatzen ari da, eta gaur egun etxeetako instalazio eta tresna elektronikoak modu automatizatuan kudeatzeko eta kontrolatzeko aukera dago. Domotika esaten zaio teknologia horri, eta hari esker hainbat tresna urrutiko aginte batetik edo sakelako telefonotik martxan jarri ahal dira, esate baterako, berogailua edo aire girotua, argiztapena eta etxetresna elektrikoak. Gainera, programa automatikoak ere sor daitezkeenez, posible da, adibidez, labea etxetik kanpo martxan jartzea eta etxera heltzeko ordurako jatekoa prest edukitzea. Azken batean, erosoago bizitzeko aukerak ematen ditu eta energia aurreztea ahalbidetu; bizitza erraztu. Ez hori bakarrik: etxearen segurtasuna kontrolpean izatea posible bihurtzen du. Izan ere, sistema gai da suteak, gasihesak eta ur-ihesak detektatzeko.

Hainbat argibide

• FUNTZIONAMENDUA:
Home box kontrol gunea ezarri behar da etxean, obrarik gabe. Etxetresnek ere Interneterako konexioa eduki behar dute.
• ETXETRESNA GUZTIAK KONEKTATURIK:
Edozein etxetresna konektatu daiteke, Interneterako sarbidea edukiz gero.
• ONURAK:
Aurrezkia, segurtasuna, erosotasuna, komunikazioa eta aisialdia.
• KOSTUA:
Inbertsioa etorkizunean errekuperatu egiten da, energia optimizatu egiten delako.
• ONURADUNAK:
Urritasunak dituztenak, umedunak eta etxetik kanpo lan egiten dutenak.
• ERABILERA:
Erraz erabili ahal da, oso intuitiboa delako.
• 5G:
Teknologia honek bultzada handia izango du 5Gari esker.

Bainugela sinpleak atzean geratu dira

Bainugelak gero eta garrantzi gehiago hartu du etxean. Espazio hau indarrez suspertu da garbitzeko leku bat baino gehiago bihurtuz. Eta berrikuntzek itxura txukunagoa, koloretsuagoa eta eguneratuagoa ematen lagunduko dute.

Komuna moduko espazio berri bat berritzea ez da zerbait erraza, baina ideia batzuekin egingarria da. Komuna diseinatzerako orduan aukera berri asko daude: formak, materialak, osagarriak... irudimena askatu eta espazioa estiloz eta edertasunez betetako leku bihur daiteke.

Elementu naturalak modan daude. Zura eta marmola indartsu sartu dira joeretan. Nahasketa horrek ez du inoiz hutsik egiten; luxuzko ukitua ematen dio konposizioari. Kristalak ere garrantzi berezia hartu du bainugelan, arrazoi funtzionalengatik zein estetikoengatik.

Komuneko koloreak ondo aukeratzea ere funtsezkoa da. Zuriak kolore nagusia izaten jarraitzen du, baina bainurako azken joera kontrastea bilatzea da.

Urdina, berdea, eta, batez ere gris iluna eta beltza moduko koloreak pinturan txertatzen dira, baina baita elementu eta osagarrietan ere.

Osagarriei dagokienez, urre koloreko osagarriak bueltan datoz. Metal urreztatuak xarma eta kontrastea eragiten ditu zura eta marmola moduko material naturalekin. Urre kolorea ia edozein estilotan erabil daiteke, eta txorrotei, lanparei, osagarriei edo ispilu markoei aplika daiteke. Ispilu borobilak ere 2021eko joera izarra dira. Kurbak edo ertz biribilduak dituzten ispilu borobilak dira joera, alikatatuen eta komuneko beste elementu zuzen batzuen lerro bertikal eta horizontalak konpentsatzeko.

BAINU-OSAGARRIAK || ISPILU BERRITZAILEAK

uraldi

Esklusibotasuna diseinuetan

94-617 10 00 • 94-617 11 28 • BUSTURIA • uraldi@uraldi.com

uraldi.com

Iturgintza / Berogintza / Berriztagarriak

www.iturbero.com

Iturbero

Iturgintzako eta berokuntzako zerbitzu integralak

Mendata
Bulegoa
Olabe auzoa, 32 esk.
48382 MENDATA

Gernika-Lumo
Biltegia
Errekazarra kalea, 7
48300 GERNIKA-LUMO

Zornotza
Biltegia
Landatxu kalea 2, behea
48340 ZORNOTZA

Kontaktua
94-625 39 62
636 37 04 83
666 84 05 88
iturbero@iturbero.com

Marmola, sukaldeetako errege berria

MARMOLA JADA EZ DA SUKALDARITZA KLASIKOAREN SINONIMOA, AIRE BERRITUAREKIN DATOR, ESTILO GUZTIENTZAKO ESPAZIOAK SORTUZ.

Hainbat urtez bere erabilera gainbeheran egon ondoren, marmola indar handiz itzuli da sukaldeetara. Jada ez da sukaldaritza klasikoaren sinonimoa, aire berrituarekin dator, estilo guztietarako espazioak sortuz. Azken aldian, gainera, beste material batzuen lekua ere hartzen ari da sukaldeko elementu ezberdinetan, eta pixkanaka sukaldeko erregea bihurtuz doa.

Ez bakarrik laneko gainazaletan, baizik eta zoru, horma eta fronteetan ere, hala nola tresnerian, aurkitu daiteke marmola egun. Sukalde gainekoez gain, ohikoa da marmolez egindako sukaldeko irlak edota harraskak ikustea. Izan ere, goialdeko marmola laneko aurrealdean luzatzeak jarraitutasun sentsazioa indartzen du, ebakiak saihesten ditu, eremua zabaltzen da eta erraz garbitzen da janaria prestatzen denean. Baina joera handituz doa. Sukaldeko mahaiak, platerak, edalontziak, lanabesak edo pitxerrak dira horren erakusle.

Arrakasta horren arrazoiak begien bistakoak dira. Marmola edertasun eta dotoretasun handiko material naturala da, eta marmolezko zoruek esaterako, izugarrizko argitasuna eta jarraitutasuna ematen diote edozein gelari, beste edozein materialek nekez imitatu dezakeena. Itxura apaingarriari iraupen luzea eta mantentzeko erraztasuna gehitzen zaizkio. Izan ere, marmola erresistentzia handiko eta iraupen luzeko materiala da, eta akabera eta kolore aukera asko eskaintzen ditu.

Diseinua eta praktikotasuna bat datoz sukaldeetan, marmolak bikain betetzen dituen bi ezaugarri. Bere porositateagatik, duela urte batzuk ez zen aukera praktikotzat hartzen. Baina, gaur egun, azalera trinko eta ultrakonpaktu berriek akabera zigilatu eta aldaezin bihurtu dute. Horregatik, beste behin ere, marmola askoren aukeren lehen lerroan jarri da, dekoratzaileak berkonkistatu ditu eta bere eskaria beste aukera batzuen gainetik handitu da. Material noblea, gogorra eta dotorea, praktikoa, garbia eta denboragabea. Marmola joera da berriro ere.

Garoa Interiorismo

JOSE MARTIN ELGEZABAL ZORROZA

> ZURE PROIEKTUAREKIN KONPROMETITZEN GARA, HURREKO HARREMANA ETA ARRETA ZUZENA BERMATUZ

Amestutako etxebizitzak errealitate bihurtzen dituzte Garoa Interiorismon. Merkatuko kalitate-prezio erlaziorik onena aurkituko dute bezeroek bertan.

2005. urtean sortu zenuten Garoa Interiorismo. Ze helbururekin?

Gure bezeroei sukaldeko altzairu italiarrak eskaintzeko helburuarekin sortu genuen. Egungo joera estetiko eta merkatuko kalitate-prezio erlaziorik onena eskaintzen diogu bezeroari, diseinuan eta prezioan dituen ideia kontuan hartuta.

Bainugelako altzariak edota horma-armairuak ere badituzue.

Hala da. Sukalde eta bainugela moderno zein landa estilokoak, horma-armairuak zein gidaridun armairuak ditugu. Gustuak eta premiak adina aukera, bezeroaren bizimodura hoberen moldatzen diren akaberekin. Edozein aldaketa egiteko aholkuak eta laguntza zuzena ematen dugu.

Izan ere, hurreko harremana da Garoaren beste ezaugarrietako bat.

Ezinbestekoa da hori guretzat. Laguntza zuzena ematen diogu bezero bakoitzari, bakoitzari behar duena. Proiektuarekin konprometitzen gara, hurreko harremana eta gure arreta zuzena bermatuz.

Eta gremioak ere koordinatzen dituzue, ezta?

Bezeroak behar izanez gero, bere berriztatze-proiektua kudeatzen dugu, alor ezberdinetako gremioekin lan eginez.

Kalera begirako leihoak

BALKOIA EDO TERRAZA DUENAK ALTXORRA DAUKALA ESAN OHI DA.

Txialdi garaian aparteko balioa lortu dute espazio irekiek, etxetik irten gabe aire zabalarekin eta kalearekin gozatzeko aukera ematen dutelako, ongizate-arentzat dakarren onura guztiarekin. Hori kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak legea moldatu du, eta eraikin berrietan zein zaharretan terrazak eta balkoiak egiteko erraztasunak eman.

Sarri etxeko balkoian edo terrazan zereginik ez dagoela pentsatzen den arren, uste okerra da, txikienari ere probetxua atera eta amestutako txokoa bihurtu baitaiteke, praktikoa zein atsegina. Horrela, dekoratzeko orduan, beti erosotasuna aintzakotzat hartu behar da, esate baterako, lurzoruan. Alfonbrak erostea izan daiteke aukera bat, baina badaude gehiago ere, hala nola, konpositea, harri naturala, egurra, lurzoru hidraulikoa edo, zergatik ez, belar artifiziala.

Bestalde, etxean egonik kanpoan egon arren, intimitatea alboratu beharrik ez dago, adibidez, barandak egurrezko panelekin estalita. Horrez gain, mahaitxo bat eta aulki batzuk jarri daitezke, tolesgarriak eta erraz gordetzeko moduak edo finkoak, barruan gauzak gordetzeko aukera ematen dutenak, premien arabera. Eta egunez modura, gauez ere giro aproposa lor daiteke, argiztapen egokiarekin, LED girlandak edo kandelak erabilita, kasu.

Nolanahi ere, burukomin handirik hartu nahi ez bada, gogoratu landareak eta loreak ezin direla falta. Haiek ematen diote tokiari bizitasuna, kolorea eta usaina, baita eguzkirik jotzen ez duen balkoietan ere.

NORA
BARNE DISEINUA
653 58 97 48 • Don Tello Kalea, 29 • 48300 GERNIKA-LUMO